



IRAKURRI AURRETIK

- Zer testu mota da hau?
- Zer nolako informazioa eskainiko dizue?

IRAKURRI ONDOREN

- Non aurkituko duzue honelako testu eredurik?
- Zein da esne honen izena?
- Zenbat esne litro dago honelako tetra brik batean?
- Erdigaingabetuaz aparte zein beste esne mota aukeratu daiteke?
- Zer esan nahi dute "Geure onena heldu da saltokietara" esaldiarekin?
- Non gorde behar dugu esnea behin tetra brika irekita dugun?
 - a. Terrazan, fresko egon dadin.
 - b. Hozkailuan, haragia gordetzen dugun bandejan.
 - c. Hozkailuan.
 - d. Ez du axola non gorde.
- 100 ml esnea edan ondoren zer nutrizio balioak hartuko zenituzkete?
- UHT prozedura zuen hitzetan azaldu.

EKINTZA OSAGARRIAK

- Esne 5 marken irudia itsatsi orri honetan bertan.
- Asmatu esne marka berri bat, esne hori saltzeko leloa idatzi eta, marraztu eta margotu.